



Zaratamoko udala

# Elikagaien kontsumo sare hurbila.

## Kontsumitu Zaratamon

Bizi dugun egoeran, ekoizle txikiei eta baserritarrei beren salmenta zuzena egiteko modua kendu zaie herrietako plazetako merkatuak debekatzean. Baina gutako bakoitza zuzeneko salmentako kontsumo-eredu baterantz urrats txikiak emateko gai bagina, herri gisa aurrerapauso handia emango genuke.

**Zaratamon proposamen batzuk aurkezten dizkizuegu** (gehiago daude), gure garaiko erronka berrietara egokitutako nekazaritza iraunkorreko eta abeltzaintzako ekoizle txikien produktuak kontsumitzeko. Gertuko produktuak, eta bermatuak. Guztion esku dago gure elikagaien ekoizpen sarea mantentzea.

Hasteko, Zaratamon baditugu betiko dendak, Lorearen denda eta Ereño harategia modukoak, Arkotxan, eta horiez gain betidanik produzitu eta saltzen dituzten produktore txikiak.

Bestetik baditugu gure herrian ardiak eta ahuntzak dituztenak eta **artxoak eta ahunzkumeak saltzen dituztenak**. Halakorik nahi izanez gero, jarri ahal zarete kontaktuan [aitorg34@gmail.com](mailto:aitorg34@gmail.com) emailera mezu bat bidalita.

Bestalde, [www.baserrikoplaza.eus](http://www.baserrikoplaza.eus) dugu ekoizle txikien proiektu bat, eta proiektu horretan dago <http://baserrikoplaza.eus/members/lurbarri-baserria-63> Arkotxan arrautza ekologikoak saltzen dituen. Haiekin harremanetan jartzeko [hizotz@gmail.com](mailto:hizotz@gmail.com)

Eta horiez gain baukagu **ERRILUR** proiektua, **komunitateak** mantentzen duen elikadura agroekologikoko proiektu bat: <https://cestaagroecologica.info> . Epe berezi honetan, kontsumo-taldean ematen dituzten elikagaiak eskaera libreko sistema baten bidez eskuratzeko aukera eskaintzen dute. Aukera librean egin dezakegu eskaera, **ostegunak baino lehenago eta hurrengo asteko asteartean ekarriko digute etxera**. Aurkezpena eta eskaerak egiteko orriak bidaltzen dizkizuegu. Zaratamon **Apirilaren 3an** hasi ziren banatzen. Eskabideak egiteko bidali mezu bat [oletabaserria7@gmail.com](mailto:oletabaserria7@gmail.com) helbidera. Mezua bidaltzen badiezue, haiek eskaerak egiteko orria bidaliko dizuete.

Une konplikatatu hauetan horiei ere erosiz gero, gure produkzio eta kontsumo sarea mantentzen lagunduko dugu.

Animo eta zaindu gaitezen!

